

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Makina automatiko hauek mundu guztiari zuzenduta daude, hau da merkatu masiboa dute. Ez du axola zer nolako pertsona zaren, nongoa zaren ez eta ze nolako ezaugarri dituzun, gurpil-aulkikoek erabiltzeko moldaturik daude ere. Erabilera errazekoak dira, ez dute inongo zailtasunik, edonork erabili ditzake, txanpona sartzearekin eta produktu aukeraketa egitearekin nahikoa da.

Bestalde, gaur egun, nork ez du erabili momenturen batean buruko mina, eztarriko mina, tiritia, golpe ukendua, preserbatibo..... edo horrelakorik bere bizitzan zehar?

Baldintza bakarra, bertako produktuak erabiltzeko dirua izatean datza. Hala ere, lehen mailako edo premiazko produktuak direnez eta gainera, “ kostu txikikoak ” behar baten aurrean edonork erabili eta erosten ditugu.

Guk aukeratu dugun herria Hondarribia da eta bertan, honako leku estrategikoetan jarriko ditugu makinak. Alderdi Zaharreko eta herri zentro-zentroan Itsasargi kalea 14-ean dagoen Iraola Martinez Maite Farmazian, Jaizkibel kanpinean, Faro de Higuier kanpinean eta Villa Lorenea hotelean eta Polikiroldegi kanpoaldean. Printzipioz, probatzeko bost leku estrategiko hauetan jarriko dugu eta gero, gure proiektuaren arrakasta ziurtatzearekin batera, leku gehiagotara zuzenduko gara.

Guk aukeratutako herria, Hondarribia da, herri txikia eta oso turistikoa, batez ere udaran, jaiegun eta aste buruetan. Herri txikia denez, ezin da bertan 24 orduz eta egunero farmazia bat irekita egon. Horregatik, oso ideia egokia iruditzen zaigu herrigunean dagoen farmazian honelako makina bat jartzea. Bestalde, kanpinak herritik apartaturik daudenez eta askotan jendea bertan geratzen denez herrira jaitsi gabe, oso interesgarria deritzogu, bertan, lehen

mailako farmaziako produktu hauek erosi ahal izateko makina jartzea. Kanpineko kasu bera gertatzen da, Villa Lorenea hotelarekin.

Bestalde, polikiroldegi kanpoaldean jartzearen erabakia, oso aproposa dela deritzogu, bertara, jende asko eta asko inguratzen baita. Hala nola, urte osoan zehar jendea, kirola egitea joateaz gain, ingurune hori, pasiorako leku ezin hobea denez, jendetza ibiltzen da bertatik urte sasoi guztietan. Gainera, hondartza ere bertan da eta udaraz gain, neguan ere, asko dira txakurrekin edo gabe txango bat egitera gerturatzen direnak.

Makina hauek Hondarrabian eta gainera leku estrategiko hauetan jartzeak arrakasta izango duelakoan gaude. Bertara jende asko inguratzeaz gain, edozein ordutan lor daitezke bertako produktuak, jendeak ez ditu farmaziako ilarak errespetatu behar eta honetaz gain bertako produktuak monodositan izango direnez, praktikotasun handiko eskaintza dela iruditzen zaigu.

Gure ustez, bezero asko izatera iritsiko gara, buruari buelta asko eman ondoren, herri eta zona oso aproposetan jarri ditugulako makinak. Udara eta jai egunetan gerturatzen den jende multzoa oso handia bada ere, gainontzeko egunetan ere mugimendua dago. Ingurune oso turistikoa izateaz gain, polikiroldegira joaten den jendea, hondartzara, bueltatxo bat ematera....

Iadanik, makina hauek merkatuan badaude ere, egia esan, monodosien ideia berria dela, honela, ez duzu tirita kaxa oso bat erosi beharko. Erosiko duzun produktu hori, momentu horretan behar duzun kantitatea izango da, kantitate txikia.

Bestalde, medikamentuak zuzenean makina batek ezin dizkigunez eskaini, hau da; farmazeutiko bat egon behar denez hor atzean salmenta hori gauzatu ahal izateko, bertan aurkitzen diren produktuak, produktu naturalak izango dira.

Produktu hauen iturria belarretan datza, ez dituzte osagai kimikoak, naturalak dira eta horregatik farmazialari eta errezetarik gabe, makina batek zuzenean eman diezaguke.

Botika naturalak direnez, jende askok ez ditu ezagutu izanen, horregatik, piktograma oso esanguratsuekin adieraziko dugu botika bakoitza zertarako gomendaturik dagoen edonork ulertu ahal izateko.